


Eguneratze-data 2011/7/5

A R T I K U L U A K

# Euskarazko Tesien II. Koldo Mitxelena sariak jaso dituzte bost doktorek

2011/05/01 | Elhuyar |


Koldo Garcia, Maite Oronoz, Jaime Zubero, J. Inazio Marko eta Idurre Alonso dira Euskarazko Tesien II. Koldo Mitxelena sarietako sarituak. Arg.: EHU.

Koldo Garcia, Maite Oronoz, Jaime Zubero, J. Inazio Marko eta Idurre Alonso dira Euskarazko Tesien II. Koldo Mitxelena sarietako sarituak.

Koldo Garciaren *Erretrobirus endogenoen detekzioa eta karakterizazioa behietan eta beste hainbat mamaliatan* tesia saritu dute Zientzia Esperimentalen arloan. Maite Oronozek jaso du Ikasketa Teknikoen arloko saria *Euskarazko errore sintaktikoak detektatzeko eta zuzentzeko baliabideen garapena: datak, postposizio-lokuzioak eta komunztadura* tesiarekin. Jaime Zuberoren *Goi mailako futbolari gazteen ezaugarri antropometriko eta fisiologikoen garrantzia aukeratze-prozesuan* tesiak jaso du Osasun Zientzietako saria. Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak alorrean, berriz, J. Inazio Markoren *Hizkuntza-eraldaketa organizazioetan: Esperientzia eta modelizazioa . Dinamizazio soziolinguistikoa gizarte pedagogiaren baitan* tesia saritu dute. Eta, azkenik, Idurre Alonsorentzat izan da Giza Zientziak alorreko saria, *Literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko batxilergoan, eduki kontzeptualetatik gaitasun komunikatiboetarako bidean* lanarengatik.

Bi urtez behin ematen diren sari hauen bitartez, EHUk eta Euskaltzaindiak euskarazko tesien ekarpen bikoitza nabarmendu nahi dute; batetik, jakintzaren arloa zabaltzen laguntzen dutelako, eta, bestetik, euskararen normalizazioaren prozesuan ere guztiz lagungarriak direlako.


Antzeko edukiak:

2011/03/24
Hodeiak, maitasuna, antxoak, Interneteko banda-zabalera, neandertalak... Gaur banatu dira CAF-Elhuyar sariak

1995/01/01
Hogei urte eta gero... hau

2010/03/18
Ispilu-neuronei, Bizkaiko Labe Garaiek utzitako arrastoei eta adimen artifizialari buruzko lanak izan dira garaile CAF-Elhuyar 2009 sarietan

2008/06/16
Berezko abortuak iragartzeko markatzaileei buruzko lan batek irabazi du Basque Research web gunearen VI. Tesi Saria

dokusare

**Artikulu berrienak:**

- Edzard Ernst: "Tratamendu alternatiboek ez dute benetako eraginik pazienteengan" 2011/07/05
- Malaspina 2010, klima-aldaketaren uberan 2011/06/18
- Elhuyar Fundazioak eta DIPCk bideo amateurren ON ZIENTZIA lehiaketa jarri dute abian, bigarrenez 2011/06/15
- Energia arriskutsua ontzi barruan 2011/06/11
- MOEk mugikorrak minbizi-eragileen sailkapenean sartu ditu, erdiko mailan. Ez gehiago, eta ez gutxiago. 2011/06/01



Elhuyar Z. eta T. 275. zk.

**Bilatu:**

Hitza:

Bilatu

Bilaketa aurreratua

Copyright © 2004 Elhuyar Fundazioa - Eskubide Guztiak Erreserbatuta.
webmaster@elhuyar.com - Tel.: +34 943 36 30 40
**800x600 eta Internet Explorer 5.5-erako egokitutako gunea**